



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA



# GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO EREMUEN IKERKETA MASTERRA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

Gaur egunean, gizarte eta hezkuntza esku-hartzeetako hainbat arlotako (kulturartekotasuna, hezkuntza inklusioa, familia, haurtzaroa, etorkinak, etab.) beharrianak gero eta nabarmenagoak dira, eta horregatik gogoeta prozesua burutzea eskatzen dute. Hezkuntza esparruko ikerketak hausnarketa horri lagun diezaioke, beti ere eragileak, eremuak eta erakundeak, eta profesionalak kontuan hartuz.

Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Unibertsitate Masterrak hezkuntzaren eremu zabal eta berri honetan profesionalak eta ikertzaileak prestatzea du helburu. Egun UPV/EHU edo beste unibertsitate batzuetan ikasten ari diren Pedagogia, Psikopedagogia, Gizarte Hezkuntza eta horiekin harremana duten arloetako profesionalen trebakuntzari buruzko ikerketa sustatzea nahi da.

---

## SARBIDEA

---

Lehentasuna emango zaie Pedagogia, Gizarte Hezkuntza eta Magisteritza tituluei. Sarbidea izango dute, baita ere, titulazio hauetako ikasleek: Gizarte- eta Zuzenbide-Zientziak, Giza Zientziak edo hezkuntza ikerketan interesa duten beste batzuek.

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Gizarte eta hezkuntza arloekin lotura duen edozein lanbide; gizarte hezkuntzako elkarteetan, udalerrietan, jolas-jardueretan, gizarte zerbitzuetan eta abar.

---

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

---

**Eskolak emateko lekua:**

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (Donostia).

**Irakaskuntza mota:**

Eskolan bertakoa.

**Hizkuntza:**

Euskara, gaztelania eta ingelesa.

**Gutxi gorabeherako prezioa:**

1.800-2.000 euro.

**Egutegia:**

Irailetik apirilera, arratsaldez.

---

## IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

---

60 ECTS / ikasturte 1 (urte batean edo bitan egin daiteke)

Nahitaezko  
Gaiak

18 ECTS kreditu

Hautazko  
Gaiak

30 ECTS kreditu

Proiektuak /  
Ikerketa-lanak

12 ECTS kreditu

Guztira

60 ECTS kreditu

---

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

---

- Haurren Eskubideak eta Hezkuntza.
- Ikerketaren Diseinua eta Ikerketarako Teknika Kualitatiboak Gizarte eta Hezkuntza Arloetan.
- Gizarte eta Hezkuntza Inklusioa.
- Gizarte Ekintzarako Erakundeak eta Programak.
- Programa Kulturantzen Garapenerako Ikerketa eta Orientazioa.
- Gizarte eta Hezkuntza Ikerketarako Metodo eta Teknika Aurreratuak.
- Ikaskuntza Sortzailea eta Etengabeko Prestakuntza.
- Hezkuntza Positiboa Testuinguru Kulturantzetan.
- Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartze Programetarako Neurketa Tresnen Ebaluazioa.
- Giza Taldeen Kudeaketa eta Prestakuntza.
- berdintasuna eta Generoa.
- Gizarte eta Hezkuntzako Esku-hartzea Hurrekin eta Nerabeekin.
- Gizarte eta Hezkuntza Programetako Ikerkuntza eta Curriculum Berrikuntza.
- Familia Orientaziorako Ikerkuntza.
- Ezintasunaren Ikuspegi Berriak.
- Historia eta Hezkuntza Ikerketarako Ikuspegi Garaikideak.
- Informazioa Kudeatzeko eta Berreskuratzeko Sistema Aurreratuak.
- Kulturarteko Hezkuntzarako Teoriak eta Praktikak.
- Master amaierako lana.

---

## HARREMANETARAKO

---

**Arduraduna:** Manuel Benito Gómez

**Posta elektronikoa:**

manuel.benito@ehu.eus

